



## BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

---

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: Zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko zerbitzua,

Gipuzkoako Foru Aldundiak emana

## DESKRIPZIOA

---

Zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko web-zerbitzuak bide ematen du ea pertsona fisiko edo juridiko bat Gipuzkoako Foru Ogasunarekin dituen zerga-betebeharretan egunean dagoen jakiteko.

Zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin konektatuko da; izan ere, erakunde horrek dauka datuak finkatzeko eskumena Gipuzkoako lurraldean.

## ESKATUTAKO DATUAK

---

Hauek dira kontsultatu nahi den pertsonari buruz gutxienez ere eman behar diren datuak:

- **Izapide-mota: KONTRATAZIOA** (Administrazioarekin egindako kontratuak) edo **DIRU-LAGUNTZA** (laguntza edo diru-laguntzen eskaera)
- Eta **aukera bi** hauetako bat:
  - **Agiri-mota (IFK) + agiriaren zk. + Izen osoa**
  - **Agiri-mota (NAN edo AIZ) + agiriaren zk. + Izena, 1. abizena eta 2. abizena**

## EMAITZAKO DATUAK

---

Adierazi zerga-betebeharretan egunean dagoen (BAI) ala EZ. Era berean, hauek ere emango ditu:

- **S emaitzako datuak:** Egunean dago.
- **Ziurtagiriaren data:** Azken erantzuna eman den eguna.
- **Emateko dagoen erantzuna (AED):** Erantzun-emaileak ezin du eskaera izapidetu kontsulta jasotzen duen une berean, eta Aurreikusitako Erantzun Denbora esanaz erantzuten du.
- **Azken erantzuna edo izapidetutakoa:** Erantzun-emaileak eskaera izapide dezake kontsulta jasotzen duen une berean, eta negoziaren azken erantzun batez erantzuten du.
- **Izapide-mota:** Kontsultatu den ziurtagiriaren mota. Gerta litezkeen balioak **KONTRATAZIOA** edo **DIRU-LAGUNTZAK** dira.

Taulan (1. taula), Zerga-betebeharren Kontsultako zerbitzuak itzulitako egoerak deskribatzen dira.

Egoeraren kodea	Egoeraren deskripzioa	Noiz itzultzen den egoera hau
0000	Derrigorrezko datu bat edo batzuk ez dira zuzen informatuak izan.	Hori gertatuko da sarrerako datuetan balidazio-erroreak egon eta eskaera erantzun-emaileari bidali barik geratu denean.

S	Titularrak ordainketa eginda dauka.	Adierazi zerga-betebeharren betetzean egoera Positiboa dela.
N	Titularrak ordainketa egin barik dauka zerga-betebeharrak ez betetzearren.	Adierazi zerga-betebeharren betetzean egoera Negatiboa dela.
E	Badira gorabeherak.	<p>Hori gertatzen da Foru Aldundiak errorearen bat antzematen duenean titularraren datu bidaliak balidatzean. Kasu horretan Errorearen Zioak informatuta azalduko dira.</p> <p><u>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN OHARRA:</u>  2012/10/08tik Gipuzkoako Foru Aldundiak errore-zioen beste mota bat itzultzen du Gipuzkoan alta emanda denbora laburrean dauden etorkin eta gazteen kasuan, baldin eta hark ezin badu jakin hauek baduten edo ez duten zerga-betebeharrik ordaindu barik.</p> <p>Kasu horietarako erantzun-mota 2 eman daitezke errore-zio legez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dago eragiketarik. Ez dago daturik. Ez dago egiaztatuta helbideratzea Gipuzkoan dagoenik. <i>(horrek esan nahi du betetzea ezin dela zehaztu, ez dagoelako pertsona horren daturik, ez atxikipenik, ez zorrik, ez aitorpenik, eta ez delako agertzen noiztik den gipuzkoarra).</i></li> <li>- Alta: uuuu/hh/ee. Ez dago eragiketarik. Ez dago daturik. <i>(horrek esan nahi du betetzea ezin dela zehaztu, ez dagoelako pertsona horren daturik, ez atxikipenik, ez zorrik, ez aitorpenik, eta, gipuzkoarra noiztik den jakiten bada ere, data hori berriegia delako ezer ziurtatu ahal izateko).</i></li> </ul> <p>Kasu horietan garrantzitsua da hala dagokien hiritarrei esatea arazoa konpondu behar dutela zelan eta <b><i>Gipuzkoako Foru Ogasunaren Zergapekoen Zentsuan alta</i></b> eskatuz <b><i>030 ereduaren bitartez</i></b>, hori egiteko, Foru Ogasunaren bulegoetako edozeinetara joan behar da.</p>

## BERTSIOAREN KONTROLA

V00	Jatorrizko bertsioa	2018/03/20
-----	---------------------	------------

## GLOSARIOA